



Uztailak 2, 3 eta 4



9:00-14:00



Donostiako EHU

6. Jirafa hizkuntza: Komunikazio Ez Bortitza eskolan

Ikastetxeko egunerokotasunean harremanez inguratuta gaude ikasleekin, gurasoekin, lankideekin eta zuzendaritza taldearekin. Ingurune fisiko eta emozional seguru bat sortzea ezinbestekoa da, non ikasleen zein irakasleen beharrak axola duten eta zaintzen diren. Modu horretan, ikasketa esanguratsuetarako prestuago egoteaz gain, begirunean eta elkarlanean oinarritutako elkarbizitza sustatzeko baldintzak landatuko dira.

Komunikazio Ez Bortitzean oinarritutako **Erlazio trebetasunak indartzeko programa** honetan, irakasleek, eredia barneratzeaz gain, gelan txertatzeko dinamikak aurkeztu eta landuko dira.



Irakasleentzat eta hezitzaileentzat.



Ikastaro praktikoa izango da. Ikasleekin egin daitezkeen proposamenetatik abiatuta, eduki teorikoekin eta adibideekin partaideen zalantzak argituko dira.

LANDUKO DIREN GAIAK

- Ziurtasuna eta konfiantza guneak sortzeko ideiak.
- Elkarbizitza, gelako giroa eta ikastetxeko erlazio desberdinak zaintzeko (ikasle, lankide, guraso, lankide) alderdia.
- Komunikazioa eta erlazio trebetasunak ikasleei transmititzeko eta beraiekin praktikatzeko proposamenak.
- Gatazken kudeaketarako, mugak jartzeko eta ikasle-irakasleen autoestimua zaintzeko baliabideak.



Nerea Mendizabal

Psikopedagogoa eta
Komunikazio Ez Bortitzeko
hezitzailea

Eman izena

